BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4942

AGINDUA, 2011ko irailaren 28koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuena, lan-esperientziaren bidez eta/edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-konpetentzia ebaluatzeko, egiaztatzeko eta ziurtatzeko prozesurako deia egiten duena, «Mendeko pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza gizarte-erakundeetan», «Pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza etxean», «Sukaldaritzako oinarrizko eragiketak», «Jatetxeko eta tabernako oinarrizko eragiketak» eta «Igeltserotza-fabrikak» lanbide-kualifikazioen konpetentzia-atalen esparruan.

Uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuak, lan-esperientziaren bidez eskuratutako lanbide-konpetentziak ezagutzeari buruzkoak, lan-esperientziaren bidez edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-konpetentzia ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurak eta eskakizunak ezartzen ditu, bai eta ebaluazio eta egiaztatze horren ondorioak ere. Prozedura hori garatzeko oinarrizko lege-esparrua da Estatuko lurralde osoan.

10.5 artikuluak adierazten du aukera dagoela berariazko deialdiak egiteko, kolektibo jakin batzuen beharrei erantzutearren.

Bestalde, autonomia-erkidegoen lankidetzarekin Hezkuntza eta Lan ministerioek bultzatutako Acredita programaren helburua da 2011. urtean zehar deialdiak egitea, horien bidez herritarrek aukera izan dezaten lan-esperientziaren bidez edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-konpetentzia ebaluatzeko eta egiaztatzeko.

Apirilaren 3ko 62/2001 Dekretuak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa, Industria, Merkataritza eta Turismo, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailenak, Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia sortzen duenak, 3. artikuluan adierazten du Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziaren funtzioak, besteak beste, biztanleria aktibo okupatuaren nahiz okupatu gabearen lanbide-konpetentzia ebaluatzeko esparruan garatuko direla, eta 6. artikuluko 1. atalean adierazten du Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia izango dela dagozkion ziurtagiriak luzatzeko erakunde arduraduna.

Era berean, aipatutako 6. artikuluaren 3. atalean adierazten da agentziak Lanbide Heziketako Euskal Planaren gauzatzea zuzentzen duten sailek, hau da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak eskatzen dizkioten funtzio guztiak garatuko dituela.

Agindu honen bidez, jarraian adierazten diren lanbide-kualifikazioetako lanbide-konpetentzia egiaztatze ahalbidetuko duen deialdia zabaltzen da: «Mendeko pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza», «Sukaldaritzako oinarrizko eragiketak», «Jatetxeko eta tabernako oinarrizko eragiketak» eta «Igeltserotza-fabrikak».

Deialdi honek ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura zuzentzen duten printzipioak kontuan hartuko ditu: norbanakoaren eskubideen errespetua, fidagarritasuna, baliozkotasuna, objektibotasuna, parte-hartzea, kalitatea eta koordinazioa.

Agindu hau lantzeko prozesuan kontsulta egin diegu Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluari eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluari.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, hau

EBATZI DUGU:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da pertsonek uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuan ezarritako lan-esperientziaren bidez eta/edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-konpetentzia ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozesurako deia egitea, «Mendeko pertsonentzako gizarte– eta osasun-laguntza gizarte-erakundeetan» (SSC320_2), «Pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza etxean» (SSC089_2), «Sukaldaritzako oinarrizko eragiketak» (HOT091_1), «Jatetxeko eta tabernako oinarrizko eragiketak» (HOT092_1) eta «Igeltserotza-fabrikak» (EOC052_2) lanbide-kualifikazioen konpetentzia-atalen esparruan.

2. artikulua.– Prozeduraren helburuak.

Deialdi honen helburuak hauek dira:

a) Pertsonek dituzten lanbide-konpetentziak, lan-esperientziaren bidez eta bestelako prestakuntza-bide ez-formalen bitartez eskuratuak, ebaluazioaren baliozkotasuna, fidagarritasuna, objektibotasuna eta zorroztasun teknikoa bermatuko duten prozedura eta metodologia komunen bidez ebaluatzea.

b) Lanbide-konpetentziak ofizialki egiaztatzea, haiek baliaraztea ahalbidetuz, hala lan-munduan txertatzea eta integratzea eta lan-merkatuan libreki ibiltzea, nola pertsonalki eta lanbidean aurrera egitea errazteko.

c) Pertsonei bizialdi osoko ikaskuntza eta lanbide-kualifikazioa areagotzeko aukera eskaintzea, egiaztatze partzial metagarria lortzeko aukerak eskainiz, dagokien lanbide-heziketako titulua edo profesionaltasun-ziurtagiria lortzera bideratutako prestakuntza osa dezaten.

3. artikulua.– Prozedura koordinatzea.

Prozedura hau apirilaren 3ko 62/2001 Dekretuaren bidez eratutako Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak koordinatuko du.

4. artikulua.– Ebaluatuko diren konpetentzia-atalak.

Deialdi honetan, I. eta II. mailako konpetentzia-atalak hauek ebaluatuko dira:

a) «Mendeko pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza gizarte-erakundeetan» 2. mailako lanbide-kualifikazioa.

UC1016_2: Pertsonei eta horien ingurukoei erakunde-esparruan laguntzeko, diziplina arteko taldeak adierazitako esku-hartzeak prestatzea eta horietan laguntzea.

UC1017_2: Mendeko pertsonei zuzendutako laguntza fisikoko esku-hartzeak erakunde-esparruan garatzea.

UC1018_2: Mendeko pertsonei zuzendutako gizarte- eta osasun-laguntzako esku-hartzeak erakunde-esparruan garatzea.

UC1019_2: Mendeko pertsonei zuzendutako laguntza psikosozialeko esku-hartzeak erakunde-esparruan garatzea.

Adierazitako konpetentzia-atalak «Mendeko pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza gizarte-erakundeetan» SSCS0108 profesionaltasun-ziurtagirian sartuta daude (1379/2008 Errege Dekretua, 08-9-9ko BOE).

b) «Pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza etxean» 2. mailako lanbide-kualifikazioa

UC0249_2: Gizarte- eta osasun-laguntzako beharrak dituzten pertsonei zuzendutako etxeko laguntza fisikoko esku-hartzeak garatzea.

UC0250_2: Gizarte- eta osasun-laguntzako beharrak dituzten pertsonei zuzendutako etxeko laguntza psikosozialeko esku-hartzeak garatzea.

UC0251_2: Bizikidetza-unitatearen kudeaketarekin eta funtzionamenduarekin lotutako jarduerak garatzea.

Adierazitako konpetentzia-atalak «Pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza etxean» SSCS0208 profesionaltasun-ziurtagirian sartuta daude (1379/2008 Errege Dekretua, 08-9-9ko BOE).

c) «Sukaldaritzako oinarrizko eragiketak» 1. mailako lanbide-kualifikazioa

UC0255_1: Sukaldaritzako hornikuntza, aurretiazko elaborazio eta kontserbazioko oinarrizko eragiketak egitea.

UC0256_1: Sukaldaritzako elaborazioan laguntzea, eta prestaketa errazak egin eta aurkeztea.

Adierazitako konpetentzia-atalak «Sukaldaritzako oinarrizko eragiketak» HOTR0108 profesionaltasun-ziurtagirian sartuta daude (1376/2008 Errege Dekretua, 08-9-6ko BOE).

d) «Jatetxeko eta tabernako oinarrizko eragiketak» 1. mailako lanbide-kualifikazioa

UC0257_1: Janariak eta edariak zerbitzatzen laguntzea.

UC0258_1: Oinarrizko hornikuntza-eragiketak egitea, eta edari errazak eta janari azkarrak prestatu eta aurkeztea.

Adierazitako konpetentzia-atalak «Jatetxeko eta tabernako oinarrizko eragiketak» HOTR0208 profesionaltasun-ziurtagirian sartuta daude (1376/2008 Errege Dekretua, 08-9-6ko BOE).

e) «Igeltserotza-fabrikak» 2. mailako lanbide-kualifikazioa:

UC0869_1: Oreak, morteroak, itsasgarriak eta hormigoiak prestatzea.

UC0142_1: Estaltzeko fabrikak eraikitzea.

UC0143_2: Bistako fabrikak eraikitzea.

UC0141_2: Igeltserotza-lanak antolatzea.

Adierazitako konpetentzia-atalak «Igeltserotza-fabrikak» EOCB0108 profesionaltasun-ziurtagirian sartuta daude (1212/2009 Errege Dekretua, 09-8-22ko BOE).

5. artikulua.– Prozeduran parte hartzeko eskakizun orokorrak.

1.– Prozeduran parte hartu nahi dutenek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiar nazionalitatea izatea, Europako Erkidegoko herritartasunaren erregistro-ziurtagiria edo Europar Batasuneko herritarraren senitartekoaren txartela lortu izana, edo Espainian bizilekua izateko baimena edo bizilekua izateko eta lan egiteko baimena indarrean izatea, atzerritartasunari eta immigrazioari buruzko Espainiako araudian ezarritako terminoetan.

b) Izena ematerakoan 18 urte beteta izatea, I. mailako kualifikazioei dagozkien konpetentzia-atalen kasuan, eta 20 urte II. mailakoen kasuan.

c) Egiaztatu nahi diren lanbide-konpetentziekin zerikusia duten lanbide edo lanpostu adierazgarrietakoren batean lan-esperientzia eta/edo prestakuntza izatea:

1) Lan-esperientziaren kasuan.

II. mailako konpetentzia-ataletarako, gutxienez 3 urte justifikatzea, gutxienez 2000 ordu lan eginda guztira, deialdia egin aurreko azken 10 urteetan, lanbide-kualifikazioan adierazitako lanbide edo lanpostu adierazgarrietakoren batean edo baliokidean. I. mailako konpetentzia-ataletarako 2 urteko lan-esperientzia eskatuko da, gutxienez 1200 ordu lan eginda guztira.

2) Prestakuntzaren kasuan.

1224/2009 Errege Dekretuaren 11.1.c.2) artikuluan xedatutakoaren arabera, deialdi honetan justifikatu beharko da deialdi honen aurreko azken 10 urteetan 370 ordu egin direla «Mendeko pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza gizarte-erakundeetan» lanbide-kualifikazioaren konpetentzia-ataletarako, 480 ordu egin direla «Pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza etxean» lanbide-kualifikazioaren konpetentzia-ataletarako, 300 ordu egin direla «Sukaldaritzako oinarrizko eragiketak» lanbide-kualifikazioaren konpetentzia-ataletarako, 240 ordu egin direla «Jatetxeko eta tabernako oinarrizko eragiketak» lanbide-kualifikazioaren konpetentzia-ataletarako eta 450 ordu egin direla «Igeltserotza-fabrikak» lanbide-kualifikazioaren konpetentzia-ataletarako.

2.– Aurreko atalean adierazitako lan-esperientziaren edo prestakuntzaren inguruko eskakizunak betetzen dituzten 25 urtetik gorakoek, eskakizun horiek agindu honen 7. artikuluan adierazitako dokumentuen bidez justifikatu ezin badituzte, prozeduran behin-behinean inskribatzeko eska dezakete. Zuzenbidean onartutako frogaren baten bidez justifikatuko dituzte lan-esperientzia edo prestakuntzako ikaskuntza ez-formalak. Kasu horiek aztertzeko, Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak izendatuko ditu inskribatzea bidezkoa den ala ez erabakiko duten aholkulariak.

6. artikulua.– Ebaluatu ahal izango den pertsona kopurua mugatzea.

«Mendeko pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza gizarte-erakundeetan» kualifikaziorako, deialdi honetan gehienez ere 1.300 izangai ebaluatuko dira.

«Pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza etxean» kualifikaziorako, deialdi honetan gehienez ere 950 izangai ebaluatuko dira.

«Sukaldaritzako oinarrizko eragiketak» kualifikaziorako, deialdi honetan gehienez ere 65 izangai ebaluatuko dira.

«Jatetxeko eta tabernako oinarrizko eragiketak» kualifikaziorako, deialdi honetan gehienez ere 60 izangai ebaluatuko dira.

«Igeltserotza-fabrikak» kualifikaziorako, deialdi honetan gehienez ere 65 izangai ebaluatuko dira.

Eskatzaile kopuruak adierazitako gehienezkoa gainditzen badu, irizpide hauek kontuan hartuko dira izangaiak hautatzeko:

a) Lan-esperientzia handiagoa egiaztatzea, azken 10 urteetan, lanbide-kualifikazioaren berariazko esparruan, lan egin duen enpresaren edo enpresen ziurtagiria eta lan-bizitzaren laburpena aurkeztuta.

b) Berdinketarik izanez gero, Enplegu Zerbitzu Publikoaren bulego batean eskatzaile izatea eta, berdinketak iraunez gero, adinez nagusiagoa izatea.

c) Aurreko deialdietan onartutako izangaiek lehentasuna izango dute.

7. artikulua.– Inskripzioak.

1.– Aurreinskripzioa.

Aurreinskripzioa agindu honen I. eranskinean ezarritako lekuetan egingo da, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkuntzan, ezarritako prozeduretariko edozeinen bitartez.

Interesdunek agindu honen II. eranskinean ageri den aurreinskripzio-eredu ofiziala bete beharko dute ezarritako egunetan, historial pertsonalarekin edo prestakuntzakoarekin batera, curriculum vitaerako Europako ereduaren arabera. Eredua interesdunen eskueran egongo da Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziaren webgunean (http://www.euskadi.net/agencia).

Aurreinskripzio-ereduarekin batera ondoren adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

a) NANaren edo, hala badagokio, pasaportearen edo AIZaren fotokopia.

b) Inoren konturako langileentzat: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren, Itsasoko Gizarte Institutuaren edo afiliatuta dauden mutualitatearen ziurtagiria, enpresa, lan-kategoria (kotizazio-taldea) eta kontratazio-aldia jasoko dituena, eta, hala badagokio, lan-esperientzia eskuratu duten enpresaren lan-kontratua edo ziurtagiria, kontratuaren prestazio-aldiak, garatutako jarduera eta jarduera hori egin den denbora-tartea berariaz jasoko dituena.

c) Langile autonomoentzat edo bere konturako langileentzat: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren edo Itsasoko Gizarte Institutuaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzan dagokion erregimen berezian alta egindako aldiena. Garatutako jardueraren deskribapena eta jarduera hori egin duen denbora-tartea.

d) Borondatezko langileentzat edo bekadunentzat:

Laguntza eman dioten erakundearen ziurtagiria, egindako jarduerak eta funtzioak, horiek egin dituzten urtea eta eskainitako guztizko ordu kopurua berariaz jasoko dituena.

e) Langabezian daudenen kasuan, enplegu-eskatzailearen txartelaren kopia zigilatua.

f) Prestakuntza-bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-konpetentzien kasuan, izangaiak egiaztatu nahi dituen konpetentzia-atalekin zerikusia duen prestakuntza duela egiaztatuko duen

dokumentuaren bidez egingo da justifikazioa. Dokumentu horretan prestakuntzaren edukiak eta orduak jasoko dira.

Aurkeztutako edo deklaratutako datuak faltsutzeak prozeduran parte hartzeko eskubidea galtzea ekarriko du berekin.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko eta behin betiko zerrendak Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziaren webgunean (http://www.euskadi.net/agencia) eta inskripzioa egiten den ikastetxeetako iragarki-tauletan emango dira argitara.

Baztertutako izangaiek erreklamazio-idazkiak aurkez diezazkiokete, onartutakoen behin-behineko zerrenden aurka, haiek argitaratu ondorengo 5 egun balioduneko epean, Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziari.

Onartutakoen behin betiko zerrendak argitaratu ondoren, emaitzarekiko desadostasunak bere horretan badirau, izangaiek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeari.

2.– Inskripzioa.

Onartutakoek aholkularitzarako inskripzioa egingo dute I. eranskinean adierazitako lekuetan. Horretarako, agindu honen III. eranskinean ageri den inskripzio-eredu ofiziala bete eta ezarritako egunetan aurkeztuko dute.

Eredua interesdunen eskueran egongo da Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziaren webgunean (http://www.euskadi.net/agencia).

Halaber, 11. artikuluan adierazten diren prezio publikoak ordaindu beharko dituzte.

8. artikulua.– Inskripzio-egutegia eta prozeduraren faseak.

1.– Inskripzio-egutegia.

«Mendeko pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza gizarte-erakundeetan» kualifikaziorako:

– Aurreinskripzio-epea: azaroaren 1etik 11ra, biak barne.

– Inskripzio-epea: abenduaren 1etik 16ra, biak barne.

«Pertsonentzako gizarte– eta osasun-laguntza etxean» kualifikaziorako:

– Aurreinskripzio-epea: urriaren 17tik 28ra, biak barne.

– Inskripzio-epea: azaroaren 14tik 29ra, biak barne.

«Sukaldaritzako oinarrizko eragiketak», «Jatetxeko eta tabernako oinarrizko eragiketak» eta «Igeltserotza-fabrikak» kualifikazioetarako:

– Aurreinskripzio-epea: abenduaren 1etik 16ra, biak barne.

– Inskripzio-epea: 2012ko urtarrilaren 16tik 27ra, biak barne.

2.– Prozeduraren faseak.

Prozedurak honako fase hauek ditu:

a) Aholkularitza.

Izangaiei ezagutu beharreko konpetentzia-atalak profesionalki aise menderatzen dituztela frogatzeko beharrezkoak diren ebidentziak jasotzen laguntzea da fase honen funtsezko helburua. Aholkularitza bakarka zein taldeka egin daiteke.

Parte hartzeko hautatuak izan diren eta dagozkien prezio publikoak ordaindu dituztela justifikatzen duten izangaiek parte hartu ahal izango dute aholkularitza-fasean. Fase hori nahitaezkoa izango da. Beraz, onartutako izangairen batek justifikaziorik gabe parte hartzen ez badu, organo kudeatzaileak prozesutik baztertutzat jo dezake.

Aholkularitza-faseak egutegi hau izango du:

«Mendeko pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza gizarte-erakundeetan» kualifikaziorako, 2012ko urtarrilaren 16tik 2012ko martxoaren 18ra.

«Pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza etxean» kualifikaziorako, 2011ko abenduaren 5etik 2012ko martxoaren 4ra.

«Sukaldaritzako oinarrizko eragiketak», «Jatetxeko eta tabernako oinarrizko eragiketak» eta «Igeltserotza-fabrikak» kualifikazioetarako, 2012ko otsailaren 1etik 2012ko martxoaren 30era.

Konpetentzia-ataletako matrikulazioa aholkularitza-fasea amaitu ondoren egingo da.

b) Ebaluazioa.

Fase honen xedea da izangaiak aurkeztutako ebidentziak nahikoa diren egiaztatzea, konpetentzia-atal bakoitzaren lanbide-burutzapenetan, burutzapen-irizpideetan ezarritako mailetan eta lanbide-testuingurua abiapuntutzat hartuta finkatutako lan-egoera erreal edo simulatu batean eskatzen den lanbide-konpetentzia esleitzeko.

Izangaia matrikulatu den konpetentzia-atal bakoitzean ebaluatu ahal izango da. Ebaluazio-fasean parte hartu ahal izateko ezinbestekoa izango da fase horri dagozkion prezio publikoak ordaindu izana justifikatzea.

Konpetentzia-atal jakin bateko lanbide-konpetentziaren ebaluazioaren emaitza «frogatua» edo «ez frogatua» izango da.

Izangaiak konpetentzia-atalen ebaluazioaren emaitzen aurka erreklamatzeko eskubidea izango du. Horretarako, bost egun naturaleko epea izango du, ebaluazioaren emaitzak entregatzen dizkiotenetik hasita, Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziako zuzendariari erreklamazioa aurkezteko.

Behin betiko ebaluazio-aktak argitaratu ondoren, emaitzarekiko desadostasunak bere horretan badirau, izangaiek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeari.

Ebaluazio-faseak egutegi hau izango du:

«Mendeko pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza gizarte-erakundeetan» kualifikaziorako, 2012ko martxoaren 19tik 2012ko maiatzaren 23ra.

«Pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza etxean» kualifikaziorako, 2012ko martxoaren 5etik 2012ko ekainaren 11ra.

«Sukaldaritzako oinarrizko eragiketak», «Jatetxeko eta tabernako oinarrizko eragiketak» eta «Igeltserotza-fabrikak» kualifikazioetarako, 2012ko apirilaren 1etik 2012ko ekainaren 11ra.

c) Konpetentzia egiaztatzea.

Prozeduran zehar frogatutako konpetentzia-atalak ezagutzean eta egiaztatzean datza.

Izangaiek lanbide-konpetentzia frogatu duten konpetentzia-atal guztien ziurtagiria jaulkiko du Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziako zuzendariak.

Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari helaraziko dizkio egiaztatzearen emaitzak, erakunde horrek erregistratzeko eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari transferitzeko, estatuko erregistroan sar ditzan.

Deialdian sartutako kualifikazio guztietarako konpetentzia-atalak egiaztatzeko aldia 2012ko uztailaren 2tik 2012ko uztailaren 30era bitartekoa izango da.

3.– Informaziorako, aholkularitzarako eta ebaluaziorako lekuak.

Agindu honen I. eranskinean adierazten diren Lanbide Heziketako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeak eta LANBIDEko bulegoak dira informazio eta aholkularitza eman eta ebaluazioa egingo duten berariazko guneak.

9. artikulua.– Egiaztatzearen balioa eta ondorioak.

Konpetentzia-atalak egiaztatzeak lanbide-heziketako tituluetako lanbide-moduluak baliozkotzeko eta profesionaltasun-ziurtagirietako prestakuntza-moduluak salbuesteko ondorioak ditu indarreko araudiaren arabera.

Prozedura horren bitartez, izangaiak profesionaltasun-ziurtagiri bat edo lanbide-heziketako titulu bat lortzeko eskakizunak betetzen dituenean, administrazio eskudunak adieraziko dio hura lortzeko zein izapide egin behar dituen.

10. artikulua.– Emaitzen konfidentzialtasuna.

Prozedura izapidetzen den bitartean egiten den datu pertsonalen edozein tratamenduk Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean xedatutakoa errespetatuko du.

11. artikulua.– Prezio publikoak.

Agindu honetan ezarritako konpetentzia ebaluatzeko, ezagutzeko eta ziurtatzeko prozesuan parte hartzen dutenek ordaindu beharreko prezio publikoak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egiten dituen zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen 2007ko maiatzaren 21eko Aginduaren (uztailaren 3ko EHAA) 5. artikuluan ezarritakoak izango dira.

Prezio publiko hori ordaindu beharretik salbu utzi ahal izango dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuta dauden langile langabeak, orientazio prozesu pertsonalizatua egin dutenak, eta prezio publikoei buruzko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aginduan deskribatutako salbuespen eta hobarietarako eskubidea dutenak.

12. artikulua.– Prestakuntza-ekintzak.

Lan-esperientziaren bidez edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozesu osoa amaitzean, deialdi honetan ezarritako prozeduran parte hartu duten guztiei idazki bat igorriko zaie, honakoa jasoko duena, dagokionaren arabera:

a) Prestakuntza-aukerak, orientazio egokiekin, egiaztatzeko eskatu dituzten konpetentzia-atalak hurrengo deialdietan egiaztatu ahal izateko.

b) Prestakuntza-aukerak, orientazio egokiekin, erlazionatutako lanbide-heziketako titulu bat edo profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzera bideratutako prestakuntza osatzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Errekurtsoak. Agindu honen aurka interesdunek, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango dute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako, eta Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailburuen aurrean, hilabeteko epean, Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, nahiz administraziorekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bigarrena.– Gaitzea. Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuordeei gaitasuna ematen zaie agindu honetan xedatutakoa betearazteko beharrezko jarraibideak eman ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 28a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

I. ERANSKINA
INSKRIPZIO ZENTROAK

IKASTETXEA - BULEGOA		HELBIDEA	POSTA K.	HERRIA	TELEFONOA
Pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza etxean Mendeko pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza gizarte-erakundeetan					
ARABA/ÁLAVA					
010134	IES Francisco de Vitoria BHI	El Salvador 1	01012	Vitoria-Gasteiz	945270655
010349	IES Samaniego-Laguardia BHi	Sancho Abarca 3	01300	laguardia	945600112
010248	CPES Jesús Obrero BHIP	Francia 32	01001	Vitoria-Gasteiz	945000333
BIZKAIA					
014069	IEFPS Nicolás Larburu GLHBI	Aldapa 3	48901	Barakaldo	944180266
014301	IEFPS Fadura GLHBI	Bizkerre z/g	48991	Getxo	944069000
015628	IEFPS Zornotza GLHBI	B. Urritxe z/g	48340	Amorebieta-Etxano	946730251
014200	IES Eskurtze BHI	Eskurtze 11	48012	Bilbao	944444408
014086	IES Urbi BHI	Agirre Lehendakaria 93	48970	Basauri	944492996
015623	IES Ondarroa BHI	Artibai 5	48700	Ondarroa	946830098
014810	CPEIPS San Jose de Calasanz HLBHIP	Ramon y Cajal Z/G 67 P.K.	48980	Santurtzi	944837811
GIPUZKOA					
012229	IEFPS Politécnico Easo Politeknikoa GLHBI	Av. de Felipe IV 1	20011	Donostia-San Sebastián	943455422
013255	IEFPS Aretxabaleta GLHBI	Etxebarri Auzoa Z/G	20550	Aretxabaleta	943797900
013432	IEFPS Meka GLHBI	Arreguitorre 2	20870	Elgoibar	943748019
012108	IES Plaiaundi BHI	Plaiaundi	20301	Irun	943617547
012286	IES J.M. Iparragirre BHI	Nekolalde 16	20700	Urretxu	943721403
Sukaldaritzako oinarrizko eragiketak eta Jatetxeko eta tabernako oinarrizko eragiketak					
ARABA/ÁLAVA					
010256	IES (ITS) Hostelería (ITB) BHI	CIR-Gamarra Mayor	01013	Vitoria-Gasteiz	945258025

BIZKAIA					
015176	IES (ITS) Hostelería/Ostalaritza (ITB) BHI	Sixta Barrenetxea 24	48960	Galdakao	944560458
014340	IES (ITS) Escuela De Hostelería (ITB) BHI	Sarriena (Unibertsitatea)	48940	Leioa	946012446
GIPUZKOA					
012497	CPES Cebanc–Cdea BHIP	Berio Ibiltokia 50	20009	Donostia-San Sebastián	943316900
Igeltserotza-fabrikak					
ARABA/ÁLAVA					
010296	IES (ITS) Construcción (ITB) BHI	Av. de los Huetos 33	01010	Vitoria-Gasteiz	945001200
BIZKAIA					
014945	IES (ITS) Construcción Bizkaia (ITB) BHI	Progreso Z/G. Oiargan-La Peña	48003	Arrigorriaga	944013840
GIPUZKOA					
012721	IES (ITS) Construcción Donostia (ITB) BHI	Casa Nao Z/G	20017	Donostia-San Sebastián	943000500

LANBIDE BULEGOAK					
ARABA/ÁLAVA					
	Lanbide Agurain	Donibane 1	1200	Salvatierra-agurain	945300328
	Lanbide Amurrio	Armurulanda 4	1470	Amurrio	945892258
	Lanbide Laudio/Llodio	Izoria 2	1400	Llodio	946672047
	Lanbide Oyon/Oion	Giralda 1	1320	Oyon/Oion Araba	945622975
	Lanbide Vitoria-Gasteiz San Martin	Pintor Clemente Arraiz 5-7	1008	Vitoria-Gasteiz	945214781
	Lanbide Vitoria-Gasteiz Txagorritxu	José Atxotegi 1	1009	Vitoria-Gasteiz	945215321
BIZKAIA					

	Lanbide Barakaldo Urbana	Araba 12	48901	Barakaldo	944381006
	Lanbide Barakaldo Burceña	Munoa 19	48903	Barakaldo	944850535
	Lanbide Basauri Urbi	Urbi 5	48970	Basauri	944494318
	Lanbide Basauri-Uribarri	Uribarri 14	48970	Basauri	944261506
	Lanbide Bilbao Mazarredo	Alameda de Mazarredo 39	48009	Bilbao	944245494
	Lanbide Bilbao Rekalde	Jaén s/n	48012	Bilbao	944441262
	Lanbide Bilbao San Inazio	Cataluña 1-3	48015	Bilbao	944479902
	Lanbide Bilbao Santutxu	Las Viñas 19	48980	Santurtzi	944629500
	Lanbide Durango	Zubiaurre 10	48200	Durango	946811296
	Lanbide Erandio	Educador Hno. Benjamín 5	48950	Erandio	944674273
	Lanbide Gernika-Lumo	Karmelo Etxegarai 8-10	48300	Gernika-Lumo	946251987
	Lanbide Getxo	Negubide 1	48930	Getxo	944645141
	Lanbide Mungia	Elorduigoitia 5	48100	Mungia	946741646
	Lanbide Ondarroa	Iñaki Deunaren 59	48700	Ondarroa	946830700
	Lanbide Portugalete	Valentín de Berriotxoa 2	48920	Portugalete	944832028
	Lanbide Santurtzi	Las Viñas 19	48980	Santurtzi	944629500
	Lanbide Sestao	Galindo 14	48910	Sestao	944956001
	Lanbide Zalla	Plaza de Euskadi 9	48860	Zalla	946670461
GIPUZKOA					
	Lanbide Arrasate-Mondragón	Nafarroa etorbidea 4	20500	Arrasate-Mondragón	943797145
	Lanbide Azpeitia	Urola 6	20730	Azpeitia	943298013
	Lanbide Beasain	Gipuzkoa (edificio urbieta) 1	20200	Beasain	943127288
	Lanbide Donostia-San Sebastián antiguo	Marino Tabuyo 14	20013	Donostia-San Sebastián	943368278
	Lanbide Donostia-San Sebastián Gros	Marino Tabuyo 14	20013	Donostia-San Sebastián	943672577
	Lanbide Eibar	Bittor Sarasketa 9	20600	Eibar	943130360
	Lanbide Elgoibar	Gabriel Krutzelaegi 8	20870	Elgoibar	943150402
	Lanbide Errenteria	Maurice Ravel14	20100	Errenteria	943130360

	Lanbide Irun San Miguel	Basurko (Barrio San Miguel) s/n	20300	Irun	943725885
	Lanbide Irun-Antzaran	Antzaran15	20301	Irun	943366032
	Lanbide Lasarte-Oria	Donostia etorbidea 5	20160	Lasarte-Oria	943611323
	Lanbide Lasarte-Oria Loiola	Íñigo de loiola	20160	Lasarte-Oria	943611992
	Lanbide Tolosa	Larramendi 3 bis	20400	Tolosa	943340895
	Lanbide Zarautz	Araba 13	20800	Zarautz	943744425
	Lanbide Zarautz	Araba 13	20800	Zarautz	943298013
	Lanbide Zumarraga	Nafarroa esperantza 3	20700	Zumarraga	943880548

II.ERANSKINA
AURREINSKRIPZIO EREDUA

AURREINSKRIPZIO ESKAERA

ESKATZAILEAREN DATUAK			**LANBIDE KUALIFIZIOA:**
Deiturak eta Izena:			NAN / Pasaportea edo baliokideak
Jaioteguna:	Nazionalitatea:		Sexua ☐ Gizonezkoa ☐ Emakumezkoa
Helbidea: Kalea, Plaza edo etorbidea eta zenbakia:			PK:
Herria:	Lurraldea:		Helbide Elektronikoa:
Telefonoa:	Mugikorra:	Sarbiderako Baldintzak:	Korrespondentzi Hezkuntza ☐ Euskera ☐ Gaztelania

	Enpresaren izena	Hasiera-data	Amaiera-data	(0)	(1)	(2)	(3)
1.							
2.							
3.							
4.							
5.							
6.							
7.							
8.							
9.							
10.							

(0) Markatu Bolondresa bada eta ordu-kopurua.
(1) Markatu lan-bizitzan ageri bada.
(2) Markatu enpresako ziurtagiria aurkeztu badu edo aitorpen zinegilea norberaren konturako langilea.
(3) Markatu enpresako ziurtagirian ageri bada edo aitorpen zinegilea norberaren konturako langilea onartutako lanposturen bat.

Behean sinatzen duenak AITORTZEN DU, bere ardurapean, eskabide honetan ageri diren datu guztiak zuzenak direla eta ESKATZEN DU gaitasun profesionala ebaluatzeko prozeduran izena ematea.

Data Sinadura

III. ERANSKINA / ANEXO III
INSKRIPZIO EREDUA / MODELO DE INSCRIPCIÓN

1. Erregistroa / Registro nº 1

AHOLKULARITZA ESKAERA. INSKRIPZIOA
SOLICITUD DE ASESORAMIENTO. INSCRIPCION

INSKRIPZIOAREN DATUAK/ DATOS DE INSCRIPCION

Eskabidearen zk. / Nº de solicitud :	**Epealdia** / Periodo :	**Titulua-Kualifikazioa** / Título-Cualificación :
NAN + Letra: / DNI + letra :		**Zentroa** / Centro :

HAUTAGARIAREN DATUAK / DATOS DEL CANDIDATO/A

Lehengo deitura / Primer apellido:			**Bigarren deitura** / Segundo apellido:
Izena / Nombre:	**Emakumea** / Mujer : **Gizona** / Hombre :	**Jioteguna** / F.nacimiento:	**Nazionalitatea** Nacionalidad:
Jaiotze-Lurralde / Provincia de Nacimiento:			**Jaiotze-Udala** / Municipio de Nacimiento:

HAUTAGARIAREN HELBIDEA / DOMICILIO DEL CANDIDATO/A

Lurralde edo Herrialde / Provincia o País:	**Udala** / Municipio:
Postal Kodea / Código Postal:	**Helbidea** / Domicilio:
1. Telefonoa / Teléfono 1:	**2. Telefonoa** / Teléfono 2:
E-mail-a / E-mail:	**Korrespondentzi hezkuntza** / Idioma de correspondencia:
Aholkulariza / Asesoramiento:	**Tasen hobaria** / Bonificación de tasas:

Eskatutako Lanbide HeziketakoKualifikazioen Katalogoen Gaitasun Atalak/ Unidades Competencia del Catálogo Nacional de Cualificaciones Profesionales solicitadas:

	Gaitasun Atala Unidad de Competencia	Kodea Código		Gaitasun Atala Unidad de Competencia	Kodea Código

Sarrera eguna / Fecha de entrada

Ikastetxearen zigilua / Sello del centro

Likidazio honi dagokion prezio publikoa irailaren 11ko 1/2007 LEGEGINTZAKO DEKRETUAren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2007ko maiatzaren 21eko Aginduaren araberakoa da. Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bategina onartzen du. Aginduak berriz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak prestatzen dituen zerbitzuen prezio publikoak finkatzen ditu.
Kitapenaren kontra berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio kitapena egin duen organoari edo bestela, ebazpenaren kontra Administrazioarekio diru erreklamazioa jarri ahal izango da Euskadiko Ekonomia Arduralaritzako Epaitegian, jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean.

Eskatzaileak bere erantzukizupean ADIERAZTEN DU egiazkoak direla eskabide honetan jarritako datuak, eta betetzen dituela Funtzio Publikoan sartzeko ezinbesteko baldintzak eta bere deialdian zehaztutakoak. Horregatik, hitz ematen du agiri bidez egiaztatuko dituela eskabidean azaldutako datu guztiak.
Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan (B.O.E. 298 1999-ko abenduaren 14-an) xedatutakoa betetzeko, bere aplikazioen bidez jasotako datu pertsonalak automatizatuko dira eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Departamentuaren Datu Basetan gordeko direla, berri ematen da. Erabiltzaileek , datuetara sartu, horiek zuzendu, ezabatu eta baliogabetzeko eskubidea une oro izango dute, aipatutako legeak esaten duen bezala eta Informazioaren Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoaren Zerbitzuei buruzko Legean ezarritako baldintzak jarraituz (34/2002 legea, uztailaren 11koa).

El precio público correspondiente a esta liquidación está sujeto al DECRETO LEGISLATIVO 1/2007, de 11 de septiembre, de aprobación del texto refundido de la Ley de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y a la Orden de 21 de mayo de 2007 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se fijan los precios públicos de los servicios que presta el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.
Contra esta liquidación podrá interponerse, en el plazo de 15 días, desde su defecto, reclamación económico-administrativa ante el "Tribunal Económico-administrativo de Euskadi", en el mismo plazo.

El solicitante DECLARA bajo su responsabilidad que son ciertos los datos consignados en esta solicitud.
De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal (B.O.E. nº 298, de 14 de diciembre de 1999), se informa que los datos personales obtenidos a través de sus aplicaciones serán objeto de tratamiento automatizado e incorporación en las Bases de Datos titularidad del Departamento de Educación, Universidades e Investigación. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición de los datos personales recogidos podrán ejercerse en todo momento en los términos previstos en la referida Ley y demás normas que la desarrollan, así como en lo dispuesto en la Ley de Servicios de la Sociedad de la Información y del Comercio Electrónico (ley 34/2002 de 11 de julio).

Banketxearen sendespen mekanikorako tartea/*Espacio para validación mecánica bancaria*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

E-Aplicacion Dispositivo_CA507

Ematen duen Erakundea/*Organo que lo expide:* **Hezkuntza, Unibersitate eta Ikerketa Saila** *Departamento de Educación, Universidad e Investigación*	**Zkia./***Nº:*

Ordainketa-gutuna *Carta de pago*		**Bilketa-prozeduraren kodea - BPK** *Código Procedimiento Recaudación - CPR*	
Erakunde igorlea *Entidad emisora*	**Erreferentzia** *Referencia*	**Identifikazioa** *Identificacion*	**Zenbatekoa** *Importe*

Ordainketa egiteko finantza-erakundeak
Entidades Financieras colaboradoras

- BBK Bilbao Bizkaia Kutxa
- Caja Vital / Vital Kutxa
- Gipuzkoa Donostia Kutxa
- Caja Laboral/ Euskadiko Kutxa
- Bankoa
- BBVA (TRN 1316)
- Santander Central Hispano
- Banco Guipuzcoano
- La Caixa

Ordainketa Interneten bidez / *Pago en Internet: http://www.euskadi.net/nireordainketa*

Kitapen honen ordainketa balioztatze mekanikoaren bitartez egiaztatzen da, edota finantza-erakunde laguntzaileak egindako diru-sarreraren ziurtagiriaren bidez

El pago de esta liquidación se acredita mediante validación mecánica o justificante del ingreso de la Entidad Financiera colaboradora.

Interesatuarentzako alea/ Ejemplar para el interesado/a

Finantza-erakunde laguntzailerako alea
Ejemplar para la Entidad Financiera colaboradora